

Ebazpena: R049/2024
Espedientea: E025/2021

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 23a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidentea eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Hauxe da hartu duten

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (ZAEA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita kalifikazioa Ekonomia Itunaren 47.ter artikuluko prozeduraren arabera zehaztea, ACSLk MLSAri egindako obra egikaritzeagatik sorturiko 2018ko eta 2019ko BEZari dagokionez. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen, 25/2021 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- MLSAk Gipuzkoan du egoitza fiskala, eta 2018an eta 2019an eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaindu zuen balio erantsiaren gaineko zerga. Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio ikuskatzeko eskumena.

ACSLk, urte horietan, lurralde erkidean aitortu zuen zerga-egoitza, eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziari zegokion ikuskatzeko eskumena.

2.- 2018. eta 2019. urteetan, ACSL erakunde «kontratatistak» eraikuntza-obrak (handitze-lanak) egin zituen lehendik zegoen industria-eraikin batean, Dulantziko (Araba) Lurgorri industrialdean logistika-planta egiteko MLSA enpresa «sustatzaile»arentzat.

3.- Sozietate kontratatistak 319.648,08 euroko BEZa jasanarazi zuen. ZAEAri ordaindu zitzaion, eta sustatzaileak kendu egin zuen.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiak egiaztapen-prozedura bat abiarazi zuen MLSAri dagokionez, eta ondorioztatu zuen bidegabea zela ACSLk eragindako

jasanarazpena, sustatzailea subjektu pasiboa baitzen, 37/1992 Legearen bidez onetsitako BEZaren Legearen 4.bat.2.f). artikuluari jarraikiz.

5.- 2020ko azaroaren 19an hasi zuen GFAk Ekonomia Itunaren 47.ter artikuluko prozedura.

6.- 2020ko abenduaren 21ean, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak erantzun zuen ez zuela jotzen aplikagarritzat prozedura, ez baitzen kalifikazioa. Alabaina, laguntzeko borondatea agertu zuen interesatuei kalterik ez egiteko. Hori dela eta, dokumentazio gehiago eskatu zuen.

7.- 2021eko urtarrilaren 27an, eskatutako dokumentazioaren zati bat bidali zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak: memoria, aurrekontua, ziurtagiriak eta obra berria aitortzeko eskritura.

Sustatzailearen eta kontratistaren arteko kontratua ez zen igorri, hitzezko kontratua baitzen.

8.- 2021eko otsailaren 19an, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak bi ohar egin zituen:

- Sustatzailearen eta kontratistaren arteko kontratua falta zela.
- Kontratistak benetako zerga-egoitza lurralde erkidean ez izatearen zantzuak ageri zirela, eta, horren ondorioz, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak ez zuela ikuskatzeko eskumenik.

9.- 2021eko martxoaren 30ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi zion ZAEARI Araudia Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordera bidali zuela desadostasuna.

10.- Bi hilabeteko epean adostasunik lortu ezenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak gatazka bat planteatu zuen 2021eko maiatzaren 18an. Gatazka hori 25/2021 espediente-zenbakiarekin izapidetu da, prozedura arruntaren bidez.

11.- 2021eko abuztuaren 31n, ZAEAK ACSLren egoitza fiskala aldatzeko proposamena igorri zion Arabako Foru Aldundiari.

12.- 2021eko azaroaren 24an, Arabako Foru Aldundiak ACSLren egoitza fiskala aldatzea onetsi zuen, 1989ko abuztuaren 4ra arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

13.- Zerga Administrazioako Estatu Agentziak, 2022. urtearen amaieran, Arabako Foru Aldundiari transferitu zizkion karpeta fiskaletik eratorritako finantza-fluxuak (horien artean, MLSAri jasanarazitako BEZa).

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

«Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 47.ter artikuluan xedatutakoaren arabera. Hau adierazten du artikuluko horrek:

Bat. Ekonomia-itun honetako irizpideen arabera administrazio ezberdinei badagokie hurrengo Bi apartatuak hizpide dituen eragiketak erregularizatzeko ikuskapen-eskumena, erregularizazioak ukitutako gainerako administrazioekin koordinatu beharko dituzte ordainarazpenak eta ikuskapenak egiteko beren eskumenak, artikuluko honetan xedatutakoari jarraituz.

Bi. Eskumenen koordinazioa kasu hauetan gauzatuko da:

a) Pertsona edo erakunde lotuen arteko eragiketen erregularizazioa.

b) Eragiketen kalifikazioa zergadunak aitortu dituen moduz bestera egitea, baldin eta horren ondorioz zergak jasanarazteko mekanismoa ezarri den zeharkako zergetan jasandako edo jasanarazitako kuotak aldatzen badira.

Hiru. Aurreko apartatuak hizpide dituen kasuetan, haien inguruan eskumenak egikaritzen ari den administrazioak beharrezkotzat jotzen duen erregularizazioko egitatezko elementuen eta zuzenbideko oinarrien berri eman beharko die ukitutako beste administrazioei, zergadunarentzako ebazpen-proposamena egin baino lehen edo dagokion ikuskapen-akta formalizatu baino lehen.

Baldin eta bi hileko epean ukitutako beste administrazioek ez badute oharririk egiten ebazpen-proposamenaren gainean, proposamena onetsi dela ulertuko da eta administrazio horiek guztiak lotetsita geratuko dira zergadunen aurrean, irizpide horiek aplikatuko baitizkiete.

Oharrik badago, horien berri emango zaio Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeari, eta batzorde horretan oharren gaineko akordioa lortu ahalko da.

Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, bai Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete bat izango dute desadostasuna Arbitraje Batzordera eramateko. Arbitraje Batzordeak gatazka konpondu beharko du, zergadunak dioena entzun ondoren, ekonomia-itun honetako 68. artikuluan aurreikusitako prozedura laburtua erabiliz.

Lau. Behin gatazka konpondu ondoren, edo konponbiderik ezean itun honetako 68. artikuluko Bi apartatuko epeak igaro eta Arbitraje Batzordeak erabakirik eman ez badu, horretan diharduen administrazioak jarduketei ekiten jarrai dezake eta administrazio-egintzak eman ditzake; egintza horien ondorioak etenda geldituko dira Arbitraje Batzordeak ebazpena eman arte».

2.- Kalifikazioaren irismena.

Ikusi ahal izan denez, BEZari dagokion lankidetzaren prozedura zehazteko, kontuan hartu behar da erregularizazioak eragiketen kalifikazioa ukitzen ote duen.

Hori horrela, oinarritzko kalifikaziotzat zer hartu behar den interpretatu behar da, Ekonomia Itunaren 2. artikulua zehazten duenari jarraikiz eta Tributuen Lege Orokorraren 12. artikulua jasotako irizpideekin bat, zeinak, aldi berean, Kode Zibilaren 3. artikulura bidaltzen baikaitu:

Bada, haren arabera, «*Arauk euren hitzen berezko esanahiaren arabera interpretatuko dira, betiere testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzako aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta*».

Zerga-legeen esparruko kalifikazioa zergadun bakoitzari aurkezten zaizkion errealitateak subsumitzeko joera duen jarrera intelektuala da, zerga-arauetan jasotako kasuetan, arau horiek arestian aipatutako irizpideen arabera interpretatu ondoren.

Beraz, eragiketa bat kalifikatzea ez da kontzeptu juridiko batean subsumitzea bakarrik (adibidez, eragiketa bat BEZaren ondorioetarako ondasun-ematea edo

zerbitzuak ematea ote den zehaztea; edo kostu bidezko edo doako ondasun-emate bat ote den argitzea; edo salerosketa edo errentamendu-salmenta bat ote den adieraztea...), baita zerga-arau batean subsumitzea ere.

Ildo horretan, kalifikazio-kontzeptutik kanpo utzi behar dugu eragiketarekin berarekin zerikusirik ez duten alderdiak aztertzeke prozesua, arau batean txertatzea zehazteko. Horren adibide argia litzateke, esate baterako, ondasun edo zerbitzu bat eskuratu dela eta hori eragiketa lotua eta salbuetsia ez dela adierazi ondoren, jasandako BEZa kengarria ote den ala ez zehaztea, ondasun edo zerbitzu hori jarduerarako beharrezkoa den edo jarduerari eragiten dion edo ez kontuan hartuta.

Alabaina, ez litzateke baztertuko eragiketa bera aztertzeke prozesua, arau batean txertatzea zehazteko. Beraz, eragiketaren subjektu pasiboaren zehaztapena Ekonomia Itunaren 47.ter artikuluan aipatzen den kalifikazioaren barruan geratuko litzateke.

Interpretazio horixe ematen du, orobat, Arbitraje Batzordearen 27/2023 Ebazpenak (45/2015 gatazkan emana eta hari metatuak), bai eta 38/2022 Ebazpenak ere (17/2022 gatazkan emana).

3.- Ez-betetzea EIABEren 15.2 artikulua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak alegatzen du ZAEAk ez duela bete Ekonomia Itunaren 66.Hiru artikuluan eta 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15.2 artikuluan (EIABE) jasotako geldiarazteko betebeharra.

66.Hiru artikulua haxe adierazten du:

«Hirugarrena. Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten den arte, kasuan kasuko zergadunak kargatzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera tributu-foru berria erabili behar den egunera atzera eraginez eramango dira».

Bestalde, EIABEren 15.2 artikulua hau ezartzen du:

«Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Bestalde, administrazio horien jarduketak, ondoreetarako, administrazio eskudun berriak Arbitraje Batzordearen arabera jatorria duen datara atzeratu beharko dira».

Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatu zuen eskumen-gatazkak Ekonomia Itunaren 47.ter artikuluari eragiten zion, eta, beraz, ez du zuzenean lotzen ZAEAk eginiko egoitza aldatzeko prozedura.

4.- Administrazio, koordinazio eta lankidetzaren printzipioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak argudiatzen duenez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren jarduera ez dator bat lankidetzaren, koordinazio eta administrazio onaren printzipioekin —hau da, ez jakinaraztea ACSL sozietatek 2021ean eginiko egoitza fiskalaren aldaketa (gatazka planteatu zen urte berean), Arabako Foru Aldundiarekin adostuta egina, ez Arbitraje Batzordeari, ez Gipuzkoako Foru Aldundiari, zeinek ez baitzuten izan horren berri harik eta ZAEAk azken alegazioen idazkia 2024an aurkeztu arte—.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, funtsezko eztabaida ebatzi ez denez, ez da bidezkoa artxibatze erabakia hartzea prozeduraren xedea gerora galdu izanagatik.

Horregatik, interesdunen multzoarentzako erregularizazioaren neutraltasuna kontuan hartuta, prozedurarekin jarraitzeko eskatzen du.

Batzorde honek kontuan hartu behar du Arabako Foru Aldundia ez dela izan prozeduran parte, eta, beraz, ezin da eztabaida konpondu Gipuzkoako Foru Aldundiak lortu nahi duen kalifikazioari dagokionez desadostasuna egiaztatu ezean.

Hala eta guztiz ere, ez da bidezkoa prozedura berriro hastea; izan ere, Arabako Foru Aldundiak, karpeta fiskala trukatzearen ondorioz, jakin behar zuen ACSLk MLSari jasanarazitako BEZaren kuotei buruz zegoen eztabaida, eta, beraz, ez zen oso izan arduratsua Gipuzkoako Foru Aldundiari helbide-aldaketa jakinarazteko garaian.

EIABEren 17.1.a) artikulua aukera ematen dio Arbitraje Batzordeari gatazka ebazteko beharrezko dokumentu edo eginbide berriak eskatzeko.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Hilabeteko epea ematea Arabako Foru Aldundiari azken alegazioen izapidea egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak lortu nahi duen kalifikazioarekin ados dagoen edo ez adieraz dezan.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Arabako Foru Aldundiari.

Sin.: Violeta Ruiz Almendral.

Sin.: Sofia Arana Landín.

Sin.: Javier Muguruza Arrese.